

## Martin Ugalderen esperientzian, hiru auzi

J.L.

*Argia*, 1.145. zk., 1987-04-05: 55.

Bere esperientziaz aritu zitzaigun Martin Ugalde, bere kazetari euskaldun esperientziaz. Venezuelan "Euzko Gaztedi" hilerokoa zuzentzen ibili zen, eta Euskal Herrira itzulirik, "Zeruko Argia"n kolaboratzen hasi, eta Juan de Ajuriagerraren aginduz "Alderdi" aldizkari klandestino aurrera ateratzen aritu zen. Azken lanbide horretan jaso zuen lehenengo istilu gogorra "h" zela eta ez zela.

Bigarren auzia "Deia"koa izan zen, Ugaldek kontatu zigunez. *"Oraingoan ere Juanito Ajuriagerra dela eta, izan nintzen deitua, euskarazko taldeko buru bezala. "H"aren arazoa onartuta ere, kosta egin zitzaidan talde nik nahi bezala osatzea, eta ifernuko etsai asko sartu omen nuen. Hala aurpegiratu zidaten. Horietako batzu han barruan daude oraindik eta ez dut uste barru borroka haundirik sortu denik".*

Hirugarren auzi gogorra, Martin Ugalderentzat, Eusko Kontseilu Orokorra sortzearekin batera etorri zitzaion, Boletin Ofiziala elebitan emateko ardura bere gain hartu bait zuen, Xalbador Garmendiarekin batera. *"Ajuriagerra eta Garaikoetxeari zor dio euskara ofizialak bere itzala. Orain egunkari euskaldun bat behar dugu. Dударik gabe izango du laster euskarak merezi duen egunkaria. Gai da gaur euskarak, Errepublika garaian ez bezala, amets hau egia bizia bihurtzeko".*